

20 Eguzkiak ez zion kasurik egin eta Lurra lehen bezain tonto gelditu zen.

– Nork lagunduko nau? Ba... sekretua nihaurek zilatuko dut. Ilargi zozo hori ederki tronpatuko dut.

Bere baitan erabaki zuen:

25 – Gaur iluntzean, bide bazterrean gordeko naiz eta Ilargia ondolik pasatzean, bat-batean aterako. Orduan bai, beste aurpegia ikusiko diodala!

Erran eta egin: bide bazterrean ongi gorde zen eta beha egon. Ilargia iluntzean agertu zen. Baina hura ere erne zegoen, Lurraren asmoak ongi ezagutzen baitzituen.

30 Lurra kukutua zen lekutik pasatzean, Ilargia ziu! itzuli zen... eta Lurra gaixoa ahoa zabalik gelditu. Ilargiaren aurpegi gordearen ikustea ez zuen kausitu!

Ordutik Lurra eta Ilargia ez dira adiskide. Lurra ateratzen delarik 35 Ilargia lo egitera doa eta Lurra lo egitera doanean Ilargiak bere ibilaldia egiten du.

Baina Lurrak ez du etsitzen; beti xede beretan dago:

“Ilargiaren beste aurpegia nola ikus dezaket?”.

Ipuin herrikoa.

